



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Saila : KONTRATAZIOA

Espediente zenbakia: 16-99

SAPU BETARRAGANEKO S.Z.R.V.L.-4 BIZITEGI **PARTZELA LEHIAKETA ETA PROZEDURA IREKI** **BIDEZ BESTERENTZEKO ADMINISTRAZIO** **BALDINTZEN AGIRIA**

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1.- ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Subjektu kontratatzailea Amorebieta-Etxanoko udala da, hots, Toki Administrazioaren nortasun juridiko publikoa duena.

Kontratazio-organoa Amorebieta-Etxanoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da, 538/2015 zk.ko Alkatetza Dekretuaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen (aurrerantzean SPKLTB) bigarren xedapen gehigarriak emandako eskumenari dagokionez.

Kontratazio-organoan kontratazio-mahaia egongo da, modu honetan eratuta:

-Mahaiburua. Amorebieta-Etxanoko udalaren alkatea edo zinegotzi ordezkaria.

-Mahaikideak:

- EAJ-PNV taldeko zinegotzi bat.
- EH Bildu taldeko zinegotzi bat.
- HEko zinegotzi bat.
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- Udaleko idazkaria edo honek eskuordetzen duen funtzionarioa.
- Udalaren kontu-hartzailea edo honek eskuordetzen duen funtzionarioa.
- Udalaren arkitektoa.

- Udalaren Administrazio Orokorreko teknikariak edo funtzionario ordezkariak idazkari lanak egingo ditu.

2.- KONTRATUAREN XEDEA



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Plegu honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea hauxe izango da: SAPU Betarraganeko S.Z.R.V.L.-4 bizitegi partzela, lehiaketaz eta prozedura irekiz, besterentzea, espedientean agertzen den Baldintza Teknikoen Agirian zehazturik dauden eta kontratuzko izaera izango duten ezaugarriekin.

Jabetza titulua. Amorebieta-Etxanoko Udalak S.Z.R.V.L.-4 partzelaren %100eko parte-hartzea du eta honen gaineko jabari osoa. Parte-hartze hori Amorebieta-Etxanoko Betarragane SAPUko Birpartzelazio proiektua esleitzearen ondorioz eskuratu du. Azken hau Tokiko Gobernu Batzordeak 2.012ko martxoaren 2an behin betiko onartu zuen.

Erregistroko inskripzioa. Amorebieta-Etxanoko Jabetza Erregistroan inskribatuta dago:

Finka: Amorebietako 19.799.

Liburukia: 2.272

Liburua: 379

Orrialdea: 209

Inskripzioa: Lehenengoa, data: 2012/06/19

Ondasunaren izaera eta xedea. Ondare ondasuna, udaleko lurzoru ondarearen zati dena.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren oinarri-prezioa hau izango da: LAUREHUN ETA HAMAZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEITA SEI ZENTIMO (418.366,66 €), gutxienerako lizitazio tipoaizango dena.

Zenbateko horretatik kanpo gelditzen dira ondokoak: %21eko BEZ, notaritzako gastuak eta Jabetza Erregistrokoak. Hauek esleipendunak ordaindu beharko ditu.

Lizitatzailleen eskaintza ekonomikoak hobetu ahal izango dira (gorantza) eta bakar-bakarrik tipoa berdindu edota gaintzen dituztenak onartuko dira. Ezein kasutan ez da onartuko ezarritako gutxienerako lizitazio tipoa baino baxuagorik, eskakizun hori betetzen ez duten guztiak baztertuz.

4. PREZIOAREN ORDAINKETA

Salmentako azken prezioa Tokiko Gobernu Batzordeak egingo duen esleipenean zehaztuko da, Kontratazio Mahaiak egindako proposamenaren ildotik.

Salmenta prezioa, BEZ erantsi ondoren, salerosketa eskritura publikoa egilesten denean ordainduko da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Adjudikazioduna kontratua formalizatu eta gauzatzeagatik sor daitekeen beste edozein tributu, tasa edota ordainarazpen ordaintzera behartuta dago. Gauza bera notariotzako edo erregistroko gastuei dagokienean, esleipenaren ondoriozko harremanak formalizatzeko agiri publikoak egilestean sortzen direnean.

Partzela dagoenean besterenduko da eta lizitazaileek beronen inguruabarrak ezagutzen dituztela ulertuko da eta ondorioz, ezin izango da erreklamaziorik egin azalera alde dagoelako (gehiago edo gutxiago), ezta inguruabar físiko, geologiko edo topografikoengatik, gehieneko eraikigarritasunaren arabera baloratuko delarik, honen eta benetan gauzatutakoaren arteko aldea (izango balitz) ez litzatekeelarik prezioa aldatzeko edota kontratua suntsitzeko bidezko arrazoi.

5. BERMEAK

Ekonomikoki proposamen onuragarriena aurkeztu duen lizitazaileak, hartutako betebeharren betepena bermatzeko xedearekin, esleipenaren zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eratu beharko du, BEZa kanpo.

Aipatutako bermea eratzeko epea hamar egun baliiodunekoa izango da, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatuta. Horrez gain, SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako baliabideetatik edozein erabili ahal izango da. Abalaren bidez eraturako behin betiko bermearen eraketa erakunde abal-emaileak egindako adierazpen arduratsuaren bidez egiaztatuko da, agiri honen I. Eranskinean jasotako eredia aintzat hartuta. Kauzioko aseguru-kontratuaren bidezko behin betiko bermearen eraketa erakunde aseguratazaileak egindako adierazpen arduratsuaren bidez egiaztatuko da, agiri honen II. Eranskinean jasotako eredia kontuan izanda.

Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitazaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitazaileari.

Bermea SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren ariora itzuliko da.

6. KONTRATUA HUTSALTZEKO ARRAZOIAK

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen kontratua suntsitzeko arrazoiak ondokoak izango dira:

- Adjudikaziodunak adjudikazioari uko egitea.
- Adjudikaziodunak kontratua formalizatzeko beharrezko baldintzak ez betetzea.
- Administrazioak eskritura egilesteko ezarritako egun eta orduan ez bertaratzea.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua suntsitzea erabakiko balitz, Udalak besterentzea hurrengo lizitatzaileri esleitu ahal izango dio, eskaintzen hurrenkera jarraituz, betiere posible denean eta adjudikaziodun berriaren adostasunarekin.

Era berean, Kode Zibilak izaera orokorrarekin ezarritakoak eta kontratu honi aplikatu dakiokeen gainontzeko legerian ezarritakoak kontratu hau suntsitzeko zioak izango dira.

7. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Kontratazio organoari dagokio Pleguak interpretatzea bai prestatze lanetan eta baita esleitzeko sasoian. Interpretazio lan honetan kontratazio organoak hartzen dituen erabakiak, zuzenean betearazleak izango dira.

II. KONTRATAZIO-PROZEDURA

8.- ESLEIPEN-PROZEDURA ETA ERA

Kontratu honen esleipena kontratazio-organok egingo du, kontratazio-mahaiak hala proposatuta, izapidetze arruntaren, prozedura irekiaren eta lehiaketaren bidez.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabilitako eskaintzen balorazio-irizpideak, zuzenean zenbatu ezin daitezkeen irizpideak eta modu automatikoan zenbatu daitezkeen irizpideak, garrantziaren arabera joera beherakorrarekin eta horiei atxikitako haztapenarekin antolatuta, hurrengo hauek dira:

ZUZENEAN ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

<p>PLAZA PROPOSAMENA: Proposatutako gunearen diseinuaren kalitatea baloratuko da, ingurura egokitzea eta altzarien kalitatea, akaberako materialak, etab. Plaza proposamenerako aurkeztu beharreko agiriak: gehienez ere memoria A4 tamainako 4 orri eta balorazio ekonomiko bat, agiri grafikoak: bi A3 koloretan, alde batetik, oinplanoarekin eta, hala badagokio, eraikuntza xehetasunekin. (Ezarritako gehieneko hau gainditzen duten eskaintzak -0,5eko zigorra jasoko dute behar baino gehiago aurkeztutako orri bakoitzeko, gehienez -5eko zigorra ezar dakiekeelarik).</p>	<p>Otik 20 puntura</p>
<p>FATXADEN PROPOSAMENA: Proposatutako fatxada motaren kalitatea baloratuko da, ingurura egokitzea (erdiguneko plaza) eta kalitate arkitektonikoa (osaketa, proportzioak, etab.). Altxaeren proposamenerako aurkeztu beharreko agiriak: gehienez ere memoria A4 tamainako 2 orri, agiri grafikoak: bi A3 koloretan, alde batetik, altxaerarekin eta, hala badagokio, eraikuntza xehetasunekin. (Ezarritako gehieneko hau gainditzen duten</p>	<p>Otik 90 puntura</p>



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

eskaintzak -0,5eko zigorra jasoko dute behar baino gehiago aurkeztutako orri bakoitzeko, gehienez -5eko zigorra ezar dakiekeelarik).	
--	--

ZUZENEAN ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEETAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEO PUNTUAK: SPKLTBren 150.4 art.ren arabera, balorazio globalean onartuak izateko zuzenean zenbatu ezin daitezkeen irizpideetan lizitatuzaileek gutxieneko puntuazio bat lortzea eskatuko da. Horrenbestez, Kontratazio Mahaiak **ez ditu kontuan hartuko 10 puntu baino gehiago lortzen ez duten eskaintzak.**

ZUZENEAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

ESKAINZA EKONOMIKOA:

Puntuak honela banatuko dira:

Zenbatekorik handiena duen eskaintza ekonomikoari 70 puntu emango zaizkio.

Lizitazio oinarrian ezarritako zenbateko bera denean eskaintza ekonomikoarena 0 puntu emango dira.

Aipatu bien artean aurkitzen diren eskaintza ekonomikoak, ondoko formula erabiliz baloratuko dira:

$$\text{Puntuak} = (C-B) \times 60 / (A-B)$$

Azalpena:

A= Aurkeztutako gehieneko eskaintza ekonomikoa

B= Lizitazio oinarria

C= Aurkeztutako gainontzeko eskaintzak

**0tik 70
puntura**

9.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura horretan pertsona fisikoek eta juridikoek parte hartu ahal izango dute, horiek espainiarrak izan zein atzerritarak izan, betiere jarduteko erabateko gaitasuna badute eta SPKLTBren 62. artikuluan (kontratatzeko debekuak) jasotako inguruabarretatik edozein bete ez badute.

Era berean, euren kabuz edo baimendutako pertsonak ordezkatuta egin ahal izango dute, betiere horretarako egiletsitako behar besteko ahalordearekin. Pertsona juridikoaren ordezkari izan kide batek esku hartu badu, orduan horretarako gaituta dagoela agiriaren bidez egiaztatu beharko du. Kasu batean zein bestean, ordezkariaren gain aipatutako kontratatzeko ezgaitasun-arrazoiek eragina izango dute.

Europako Batasuneko Estatu Kideen enpresa ez-espainiarrek jarduteko gaitasuna Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorraren I. Eranskinean jasotako lanbide- edo merkataritza-erregistro hauetako batean inskribatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dute: Europako Batasuneko Estatu Kideen eta Europako Gune Ekonomikoari buruzko Akordioaren Sinatzaileen Erregistroak.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Europako Batasunekoak ez diren Estatuko pertsona fisikoek edo juridikoek Espainiako Diplomaziako Misio Iraunkor egokiak luzatutako txostenaren bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuak aldi berean Espainiako enpresen eta Administrazioarekin nahiz SPKLTBren 3. artikuluan zenbatutako bestelako erakundeekin kontratazioa egitea onartzen duela. Hala, beharrezkoa izango da enpresa horiek Espainian bulegoa irekita izatea, eragiketak egiteko ahaldunak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea.

Nolanahi ere, enpresa ez-espainiarrek kontratatze gaitasuna egiaztatzeko aurkeztu dituzten agiriak modu ofizialean gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira.

Administrazioak ondore horretarako aldi baterako eratutako enpresarien elkarteak kontratatu ahal izango du (horretarako beharrezkoa izan gabe horiek eskritura publikoan formalizatzea esleipena egin arte). Hain zuzen ere, erantzukizun solidarioa izango dute Administrazioari begira, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko da. Lizitatzailerak ezin izango du aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Gainera, ezin izango du sinatu Aldi Baterako Elkarte gisa bestelako enpresekin, baldin eta hori bakarka egin badu, ezta Enpresen Aldi Baterako Elkarte gisa agertu ere. Printzipio hori betetzen ez bada, aurkeztutako guztiei gaitziritzia emango zaie.

10.- PROPOSAMENEN AURKEZPENA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

Kontratazio honen espedientea, baita berari lotutako dokumentazio teknikoa ere, erakusgai egongo da Amorebieta-Etxanoko Udalaren bulegoetan, 9:30etik 14:30era, egun baliodun guztietan, lizitazio honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta agertu ondoko egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak Amorebieta-Etxanoko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, aurretik adierazitako ordutegi berean eta 30 egun naturaleko epearen barruan, kontratuaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna larunbata edo baliogabe izanez gero, astelehen edo hurrengo egun balioduna arte luzatuko da, hurrenez hurren.

Lizitazio hau, halaber, kontratazio organoaren kontratatzaileraren profileen iragarriko da. Honetan sartu ahal izango da informatikako hurrengo atari edo web orri honen bidez: www.amorebieta-etxano.eus.

Hautagaiak eskabidea postaz bidali badu, bidalketa-data Posta bulegoan justifikatu eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren Erregistroan iragarri beharko du eskabidea egun berean telefax edo telegrama bidez igorri duela. Betekizun horiek bete ez badira, edo igorpenaren komunikazioa eskabideak jasotzeko epea igaro ostean jaso bada, eskabidea ez da onartuko. Egutegiko zazpi egun igaro badira aipatutako datatik eskabiderik jaso gabe, hori ez da onartuko.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Lizitatzailleek bi gutun-azal itxi (A eta B) aurkeztu beharko dituzte, horrek edo ordezkariak sinatuta, eta horietako bakoitzean hau azalduko da: “SAPU BETARRAGANEKO S.Z.R.V.L.-4 BIZITEGI PARTZELA BESTERENTZEKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

A gutun-azalaren azpizenburua “**KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**” da, ondoko agiriak bilduta:

a) Eskaintza aurkeztu duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Lizitatzaillea pertsona juridikoa denean, eskaintza aurkeztu duen pertsonaren NANaz gain, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa-, edo, hala denean, aldaketa-eskritura eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin eta inskripzioa aplikatu beharreko merkataritza-legeriaren arabera eskatu behar bada. Europako Batasuneko Estatu Kideen enpresari ez-espainiarrak direnean, inskripzioa lanbide- edo merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko da, betiere betekizun hori kasuan kasuko Estatuaren legeriak hala eskatu badu.

c) Lizitatzailleak bere izenean jarduten ez badu, edo hori sozietatea edo pertsona juridikoa denean, proposamen ekonomikoa sinatu duenak kontratazio-organoaren aurrean jarduteko behar besteko ahalordea duela eta horrekin bere izenean nahiz kasuan kasuko pertsonaren edo erakundearen ordezkari gisa kontratatzeke behar besteko ahalordea duela egiaztatzeko agiri sinesgarriak aurkeztu beharko ditu.

d) Kontratatzeke debekuetan ez dela ageri baieztatzen duen esanbidezko adierazpen arduratsua. Lizitatzailleek, SPKLren 62.1 artikuluan ezarritako baliabideetatik edozeinen ariora, SPKLren 49. artikuluan aipatutako inguruabarretatik edozein bete ez dutela adierazi beharko dute. Bada, III. Eranskin gisa erantsitako eredia erabili ahal izango da. Europako Batasuneko Estatu kideak direnean edo Europako Gune Ekonomikoaren sinatzaileak direnean, adierazpena SPKLren 62.2 artikuluan ezarritakoaren ariora egin ahal izango da.

Lizitatzailleen Erregistroak luzatutako ziurtagiriaren bidez egindako egiaztapena. Aurretik aipatutako agiri guztien ordez, a) atalean jasotakoa izan ezik, ondoko erregistroetatik edozeinek luzatutako ziurtagiria ezarri ahal da: Bizkaiko Lurralde Historikoko Lizitatzailleen Erregistroak; Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialak; Estatuako Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak; Erkidegoaren sailkapen-ziurtagiria.

Kasuan kasuko erregistroak aurkeztutako ziurtagirian jasotako inguruabarrei dagokienez, eskatutako agirien egiaztagiria aurkeztuko da.

Edozein kasutan ere, ziurtagiriarekin batera lizitatzailleak egindako adierazpen arduratsua aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan ziurtagiri egokian jasotako inguruabarrek inolako aldaketarik jasan ez dutela azpimarratuko da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

e) Enpresari batzuk lizitazioan Enpresen Aldi Baterako Elkartearen eratu esku hartu badute, horietako bakoitzak jarduteko gaitasuna aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko du. Era berean, proposamenean ABEE bakoitzak egin beharreko xedearen zatia adieraziko dute, horien guztien kaudimen-betekizunak zehaztu eta egiaztatzeko.

Elkarte hori Administrazioaren aurrean eraginkorra izan dadin, nahikoa izango da proposamen-idazkian hori sinatu duten enpresariaren izenak eta parte-hartzea eta horietako bakoitzaren partaidetza zehaztea, bai eta kontratuaren indarraldian Administrazioaren aurrean ordezkari gisa jardungo duen pertsonaren edo erakundearen izendatzea ere. Hain zuzen ere, Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrean erantzukizun solidarioa izango du.

Lizitazioa enpresari elkarteari esleitu zaionean bakarrik horiek egiaztatu beharko dute horren eraketa eskritura publikoaren bidez kontratazio-organoren aurrean, betiere elkartearen ordezkaria edo ahalduz bakarrik behar besteko ahalordeekin izendatuta, eskubideak egikaritu eta kontratuaren betebeharrak betetzeko hori iraungi bitartean. Enpresariaren Aldi Baterako Elkartearen iraupena kontratua iraungi arte izango da.

f) Atzerriko enpresari kasuan, mota guztietako ordenetako Espainiako Epaitegien nahiz Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzeko adierazpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen intzidentziei begira, eta, hala denean, jurisdikzio-foruari uko eginda.

"B" gutun-azalak azpitolulutzat **"ZUZENEAN ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK"** izango du, eta plaza proposamenerako eta altxaeratarako aurkeztu beharreko agiriak izango ditu.

Plaza proposamena deskribatzeko ondokoak aurkeztu beharko dira:

- Deskribapen-memoria eta gehieneko estimazioa kapituluka. A4 tamainako 4 orri erabili daitezke gehienez eta gutxienez 10 letra tamaina.
- Agiri grafikoak: Bi A3 koloretan, altxaerak alde batetik eta, hala badagokio, eraikuntza xehetasunak. Letra tamaina gutxienez 10eko izango da.

Altxaeraren proposamena deskribatzeko ondokoak aurkeztu beharko dira:

- Deskribapen memoria. A4 tamainako 2 orri erabili daitezke gehienez eta gutxienez 10 letra tamaina.
- Agiri grafikoak: Bi A3 koloretan, altxaerak alde batetik eta, hala badagokio, eraikuntza xehetasunak. Letra tamaina gutxienez 10eko izango da.

"C" gutun-azalak azpitolulutzat **"ZUZENEAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK"** izango du, eta agiri honen IV. Eranskin gisa erantsen eredura egokitutako eskaintza ekonomikoa bakarrik izango du.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Gutun-azal bakoitzean izan beharreko edukia errespetatzen ez duten eskaintzak baztertuak izango dira, zuzenean zenbatu ezin daitezkeen irizpideak eta zuzenean zenbatu daitezkeen irizpideak ez bereizteagatik.

Administrazioak, dela esleipenaren aurretik dela esleipenaren ostean, eta kontratuaren aribidean, A eta B gutun-azaletan jasotako agirien edukien egiaztasuna egiaztatu ahal izango du. Izan ere, enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak izanez gero, kontratua deuseztatuko da, kontratistari egotzi dakioken ez-betetzearen ondorioz, behin betiko bermea galdua, edo, hala denean, bermerik eratu ez bada, horren zenbatekoaren kalte-ordaina ordainduko dio. Gainera, Administrazioari ere konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte-galeren kalte-ordaina ordaindu beharko dio.

Lizitatzailleek eskatutako agiriak jatorrizkoan aurkeztu ahal izango dituzte edo, bestela, hauen kopia, notario batek edo Administrazioak behar bezala benetakotuta.

Kontratua esleitu ondoren eta errekurtsioak aurkartzeko epeak igaro ondoren hauek jarri ez direlarik, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak adjudikaziodun izan ez diren interesdunen eskura geldituko dira. Data horretatik aurrerak, hilabeteko epean itzultzeko eskaririk egiten ez bada, agiriak suntsitu egingo dira.

11. AGIRIEN KALIFIKAZIOA, ENPRESEN HAUTESPENA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA

11.1. Agirien kalifikazioa, ongitu daitezkeen akatsak.

Proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, kontratazio-mahaiak lizitatzailleek aurkeztutako administrazio-agiriak ireki eta egiaztatuko ditu, bai epean bai forman, hots, A gutun-azala.

Aurkeztutako agirian ongitu daitezkeen akatsak edo ez-betetzeak antzeman badira, orduan interesdunei fax edo posta elektronikoko bidez komunikatuko die, eta, gehienez ere, hiru egun balioduneko epea izango dute komunikazioa egiten denetik zenbatuta, antzemandako akatsak ongitu ahal izateko.

Agirian ongitu ezin daitezkeen funtsezko akatsak edo gorabeherak ageri badira, proposamena baztertu egingo da.

Lan horiek amaitu ondoren, kontratazio-mahaiak lizitazioari begira onartutakoan, baztertutakoan eta bazterketa horren arrazoien gaineko esanbidezko adierazpena egingo du.

11.2. Proposamenen irekiera.

Lehenengo egintza. B gutun-azalean jasotako agirien irekiera, zuzenean zenbatu ezin daitezkeen irizpideak, egintza publikoan gauzatuko da Amorebieta-Etxanoko udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Ekitaldi honetan aurkeztutako proposamenen, lizitatzailen izenaren, agiriak kalifikatzeko emaitzaren, eta, hala denean, akatsen ongitzearen berri emango da. Ostean, mahaiak eskaintza teknikoak jasotzen dituen gutun-azalak ireki ahal izango ditu, aurkezpenaren hurrenkera aintzat hartuta, eta horietako bakoitzaren edukia azalduko du.

Jardundako guztia agirietan jasoko da.

Bigarren egintza. Balorazioa amaitu ondoren eta dagokion txosten teknikoa prestatu ondoren, egintza publiko berri bat deituko da, Amorebieta-Etxanoko Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan.

Lehenengo eta behin, zuzenean zenbatu ezin daitezkeen irizpideen balorazioaren emaitza ezagutaraziko da.

Bigarrenik, C gutun-azalean, ZUZENEAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK, dauden agiriak zabalduko dira, proposamen ekonomikoak irakurriz.

Eskaintza ekonomiko onenen artean berdinketa egoera bat suertatuko balitz, adjudikazioa eskaintza ekonomikorik altuena aurkeztu duenaren alde egingo da. Berdinketak jarraituko balu, adjudikazioa Kontratazio Mahaik egindako zozketa bidez gauzatuko da.

Jarraian, eta, bere kasuan, aurretiaz txosten egokiak eginda, kontratazio-mahaiak kontratua esleitzeko proposamena hori egin behar duen kontratazio-organoari helaraziko dio.

12. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

12.1. Eskaintzen sailkapena.

Kontratazio organoak gehienetik gutxienerako hurrenkera sailkatuko ditu aurkeztu diren proposamenak. Horretarako, kontuan hartuko ditu pleguan adierazitako esleipen irizpideak eta egoki irizitako txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

Kontratazio organoak eskaintza abantailatsuena egin duen lizitatzaileri eskatuko dio, hamar egun balioduneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, ondoren zehazten diren ziurtagiriak aurkezteko:

- Indarreko xedapenen arabera ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak eguneratuta dituela adierazten dituzten agiriak aurkeztea.
- Kontratua esleitzeko zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eratzea (BEZa kanpo).
- Adjudikazioduna ABEE bat denean, goian aipatutako agiriez gain, epe berean, eraketaren eskritura publikoa, Aldi Baterako Elkarteari atxikitako IFK eta behar besteko ahalordea duen ordezkariaren



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitatzailerak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailerari.

Bestalde, esleipendunak publizitate-gastuak ordaindu beharko ditu (gehienez 900 €).

12.2. Kontratu esleipena.

Kontratazio-organoak eskatutako dokumentazioa jaso eta egutegiko bost eguneko epean kontratua esleituko du. Halaber, esleipena hiru hilabeteko epean abantailarik handiena eskuratu duen proposamenari egingo zaio, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik zenbatuta (B gutun-azalak).

Halaber, ezarritako epeak igaro badira eta ebazpen-erabakirik eman ez bada, interesdunek eskaintzak atzera bota ahal izango dituzte, baita, hala denean, gordailututako bermeak ere.

Kontratazio-organoak ezin izango du adierazi lizitazioa hutsala dela, baldin eta eskaintza edo proposamen onargarria badago, agirian jasotako irizpideak aintzat hartuta.

Kontratuaren esleipena, ziodun ebazpenaren bidez, erabaki eta gero, lizitatzailerari jakinaraziko zaie. Aldi berean, esleipena kontratazio organoaren kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

12.3. Kontratu sinatzea.

Jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 30 eguneko epean, Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta adjudikaziodunaren arteko salerosketa eskritura publikoa egiletsiko da, Kode Zibilak salerosketa kasuetarako jasotzen dituen eskubide eta betebeharrak aplikatu ahal izango direlarik.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ezin denean kontratua formalizatu, Administrazioak kontratua suntsitzea erabakiko du, horretarako alde zuzenetik kontratistari jakinarazi beharko zaiolarik.

Kontratu suntsituko balitz, adjudikazioa baliogabetu egingo da.

Arrazoiak ezin dakizkiokeenean adjudikaziodunari egotzi, Administrazioak epea luzatuko du arrazoiak ematen dituen idazki baten bidez eta adjudikaziodunari epe berri bat emango zaio, hasierakoa baino luzeagoa ezingo delarik izan.

Kontratu formalizatzen denean, adjudikaziodunak baldintza teknikoaren pleguak eta administrazio baldintza partikularren pleguak sinatuko ditu. Bi dokumentuek kontratu izaera izango dute.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Kontratistak aurkeztutako eskaintzak kontratu-balioa du, hobekuntzei, proposamenei eta kontratuaren burutzapenean eragina izan dezaketen bestelako alderdiei begira, ezarritako balorazio irizpideen arabera, kontratuaren esleipenerako erabakigarriak izan direnak.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

13.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honetan oinarritutako kontratua pribatua izango da eta ondokoek arautuko dute:

- a) Bere prestaketa, eskuduntza eta adjudikazioari dagokionez, plegu hau, baldintza teknikoen plegua, ekainaren 30eko Euskal Autonomi Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, maiatzaren 8ko 817/2007 Errege Dekretua, zati batean urriaren 30eko 30/2007 Arlo Publikoko Kontratuen Legea garatzen duena, SPKLTBn ezarritakoaren aurka ez doan guztian urriaren 12ko 1098/01 Errege Dekretu bidez onartutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra eta Administrazio Publikoen kontratazioan aplika daitezkeen gainontzeko arauak, Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, Toki Araubide arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua eta baita azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.
- b) Ondorio eta azkentzeari dagokionez, Kode Zibilean ezarritakoa eta zuzenbide pribatuko gainontzeko xedapenak.

14. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio zibila izango da alderdien arteko desadostasunak ebazteko eskuduna. Hala ere, kontratua prestatu eta esleitzearen inguruan ematen direnak aparteko egintza juridikotzat hartuko dira eta ondorioz, administrazioarekiko auzibidean aurkaratu ahal izango dira, jurisdikzio honen araudian ezarritakoaren arabera.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

I. ERANSKINA: ABALAREN EREDUA

..... erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFZ duena, helbidea (jakinarazpenak eta agindeiak jasotzeko) duena,n, eta bere izenean (ahaldunen izen-abizenak) jardunda, egintza honetan behartzeko behar besteko ahalordeekin, agiri honen beheko aldean aipatutako ahalordeen askiestea kontuan izanda,

ONDOKOA ABALATU DU

..... (abalatuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena), IFZ duena, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, **SAPU BETARRAGANEKO S.Z.R.V.L.-4 BIZITEGI PARTZELA BESTERENTZEA** betearazteko xedea jasotzen duen kontratuaren esleipena egin ahal izateko, Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrean, zenbatekoarekin (letretan eta zenbakietan).

Erakunde abal-emaileak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 56.2 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituela adierazi du. Abal hori modu solidarioan eman da behartu nagusiari begira, ordaindu behar izatera behartua ez izateko eskubideari beren beregi uko eginda, eta Gordailuen Kutxa Orokorraren edo gainerako Herri Administrazioen organo baliokidearen lehenengo agindeia ordaintzeko konpromisoa hartuta, betiere Herri Administrazioen kontratuei buruzko legerian, horien garapen-arauetan eta Gordailuen Kutxa Orokorraren arauketa arautzailean ezarritako baldintzen mende.

Abal horrek Amorebieta-Etxanoko Udalak edo horren izenean legez horretarako gaitutakoak horren ezereztea edo itzulketa baimendu arte indarrean iraungo du, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta legeria osagarrian ezarritakoari helduta.

Berme-agiri hau data berean Abalen Erregistro berezian inskribatu da zenbakiarekin.

.....(e)n, 2016koaren(e)(a)n

(Erakundearen izena)
(Ahaldunen sinadura)

C.G.D.ko AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN EDO ESTATUKO
ABOKATUTZAREN AHALORDEEN ASKIESTEA
(Probintzia/Data/Kodearen zenbakia)



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

II. ERANSKINA: KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRI-EREDUA

..... erakundeak (aseguratzailearen izena), zenbakiko ziurtagiria duena (aurrerantzean aseguratzailerak), helbidea eta IFZ dituen, eta bere izenean (ahaldunen izen-abizenak) jardunda, egintza honetan behartzeko behar besteko ahalordeekin, agiri honen beheko aldean aipatutako ahalordeen askiestea kontuan izanda,

ONDOKOA ASEGURATU DU

..... (aseguratuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena),IFZ duena, aseguratuaren gisa, Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrean, (aurrerantzean aseguratu), zenbateraino iritsi arte (letretan eta zenbakietan), Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Testu Bateratuaren Legean, garapen-arauetan eta , **SAPU BETARRAGANEKO S.Z.R.V.L.-4 BIZITEGI PARTZELA BESTERENTZEA** betearaztearen xedea jaso duen kontratua arautu dituen administrazio-klausula berezien agirian jasotako baldintzen mende, BEHIN BETIKO BERME gisa, aseguratuari begira aurretik aipatutako arauen eta gainerako administrazio-baldintzen arabera sortutako kalte-galerei aurre egin ahal izateko.

Aseguratzaileak adierazi du Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 57.1 artikuluan eskatutako betekizun guztiak betetzen dituela.

Primaren ordainketa egin ez bada, dela bakarra, lehenengoa dela ondorengoak, horrek ez dio emango eskubiderik aseguratzailerari kontratua ebazteko, eta hori ez da geratuko azkenduta, ezta aseguratzaileraren estaldura etenda edo betebeharretik aske geratuko ere. Izatez, aseguratzailerak bermea gauzatu beharko du.

Aseguratzaileak ezin izango dio eragotzi aseguratuari begira aseguratuaren aurka ezarri ditzakeen salbuespenak.

Aseguratzaileak aseguratuari Gordailuen Kutxa Orokorraren edo gainerako Herri Administrazioen organo baliokidearen lehenengo agindeia ordaintzeko konpromisoa hartu du, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean eta gainerako garapen-arauetan ezarritako baldintzen mende.

Kauzio-aseguru horrek Amorebieta-Etxanoko Udalak edo horren izenean legez horretarako gaitutakoak horren ezereztea edo itzulketa baimendu arte indarrean iraungo du, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean eta legeria osagarrian ezarritakoari helduta.

.....(e)n, 2016koaren(e)(a)n

(Erakunde aseguratzaileraren izena)
(Ahaldunen sinadura)

C.G.D.ko AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN EDO ESTATUKO
ABOKATUTZAREN AHALORDEEN ASKIESTE (Probintzia)



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

III. ERANSKINA: KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA BAIEZTATZEN DUEN ESANBIDEZKO ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA

.....jaunak/andreak, helbidea
duenak, eta NAN zenbakia duenak, bere izenean eta/edo
..... enpresaren ordezkari gisa, helbidea duena,
eta IFK duena

AITORTU DU

Berak, berak ordezkatzeko duen Merkataritza Sozietateak eta Sozietatearen gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonak ez daudela murgilduta SPKLTBren 62. artikuluan Administrazioarekin kontratatzeke zenbatutako debeku-, ezgaitasun- edo bateraezintasun-auzietan.

Era berean, enpresa horrek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak eguneratuta dituela jaso da.

Eta horrela ager dadin, **SAPU BETARRAGANEKO S.Z.R.V.L.-4 BIZITEGI PARTZELA BESTERENTZEA** prozedura irekiaren bidez besterentzeko prozesuan parte hartzeko aurkeztu beharreko agirien ondoretarako, aitortpen hau luzatu dut.

.....(e)n, 2016koaren(e)(a)n

Sin.:



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

IV. ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik,jaunak/andreak, helbidean bizi naizen honek, NAN zenbakidunak eta.....telefono-zenbakidunak, erabateko gaitasun juridikoarekin eta jarduteko gaitasunarekin, norberaren izenean (edo enpresaren ordezkari gisa), Amorebieta-Etxanoko Udalak **SAPU BETARRAGANEKO S.Z.R.V.L.-4 BIZITEGI PARTZELA** besterentzeko deitutako prozedura irekiaren berri izanda, ondokoa aitortu dut:

1. Prezio honen truke parte-hartzea erosteko konpromisoa hartu dudala, BEZa kanpo:

..... (letrak eta zenbakiak) EURO gehi BEZa (%21):
..... EURO. Prezio barruan kontzeptu guztiak sartuta daudela ulertuko da, baita zerga, gastu, tasa eta zerga alorreko edozein motatako arielak, baita kontratistaren etekin industrialak ere, kontratuaren hasierako indarraldian.

Baldintza teknikoak, administrazio-klausula bereziak eta kontratu hau arautu beharreko gainerako agiriak ezagutzen ditudala, horiek guztiak beren beregi nire gain hartuta.

.....(e)n, 2016koaren(e)(a)n

Sin.: